

**T**xapelketa bada tontorrari begira egiten den bidea. Finalera gerturatu ahala indartzen dira fokuak. Baina bidean gauza interesgarriak gertatu ohi dira, gora bakarrik begira egonez gero ikusten ez direnak. Aste honetan hasi da Gipuzkoa Bertsotan, txapelketarako sailkapen fasea. Aurten hasiera horri ere fokua jartzea erabaki du Gipuzkoako Bertsotale Elkartek.

«Lehenengo faseari garrantzia eman nahi diogu. Garbi genuen ahalik eta txapelketa horizontalena egin nahi genuela. Gipuzkoako udazkene-ko txapelketak berez hartzen du garrantzia, baina badira ekarpen oso garrantzitsua egin dezaketen bertsolariak, orain arte txapelketan toki txikiagoa izan dutenak. Horri erantzun bat emateko, Gipuzkoa Bertsotan izeneko sailkapen fasean aldaketa batzuk egin ditugu. Udaberriko faseak ere esanguratsua izan nahi du», hasi ditu azalpenak Beñat Azaldegik, Gipuzkoako Bertsotale Elkarteko sustapen eragileak.

Aste honetan abiatu da udaberriko fasea, sailkapenerako pausoa, Eskoriatzan, Zestoan eta Gabirian. Guztira 20 saio jokatu dira, bi itzulira. Hori izango da berritasuna. 74 bertsolari abiatu dira eta horietatik 48 sailkatuko dira bigarren saltora. Eta azkenean, 34 bertsolarik lortuko dute udazkeneko txartela.

Sailkapen fasea askotan oharkabe samarrean pasatzen da. Ez parte hartu dutenentzat, baina bai komunikabideentzat eta publiko orokorarentzat. «Aurten garrantzia eman nahi izan diogu; plazan askotan ikusten ez diren ber-



## GIPUZKOA BERTSOTAN

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkapena jokoan; finaleko tontorra urrun eta bide osoa gozagarri

 **BERTSOLARITZA** / Amagoia MUJICA TELLERIA

«Hasieran gertatzen denari garrantzia eman nahi diogu», esan du Beñat Azaldegik, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako arduradunak. Udazkenean hartuko du txapelketak martxa beteagoa, orduan piztuko dira fokuak. Baina Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasea martxan da, eta seguru gauza interesgarriak gertatzen direla.

tsolariak entzuteko aukera bikaina da, eta horrek freskotasuna ekartzen du berez. Bertso eskolak aktibatze-ko modua ere bada, eta komunitatea indartzeko bidea. Gauza on asko ikusten dizkiogu, eta

horregatik egin dugu horren aldeko apustua».

Gipuzkoako Txapelketa lau urtez behin egiten da, normalean Euskal Herriko Txapelketaren lau-urtekoaren erdian. Aurten lau urteko ziklo horre-

tan salbuespena izango da, azken txapelketatik bost urtera jokatuko baita. Izan ere, pandemiaren ondorioz, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa urtebeteko atzerapenez jokatu zen 2022. urtean.

Bada parean egokitu den beste efemeride bat: lehen bertso eskola sortu zeneko 50. urteurrena. Lehen bertso eskola Leintz bailaran sortu zen Joanito Akizu, Xanti Iparragierre eta Patxi Goikolearen ekimenez, Arrasateko Almen Ikastolaren bueltan. 1974ko bultzada hark ekarri du bertsogintza egunotaraino, bertso eskolak oinarritzko kanpaleku dituela.

Azken urteotan bada kezka bertso eskolen osasunari buruz. «Geldialditxo bat egon dela ikusi dugu, batez ere pandemiaren ostean, eta ez plazan bakarrik. Plaza sonatuenek martxan jarraitu dute, badago kontsolidatua dagoen bertso

Goiko irudian, 2019ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan Tolosan izandako saio jendetsua.  
Gorka RUBIO | FOKU

zirkuitu bat, eta horrek eutsi dio. Baina zirkuitu horrek plaza jakin batzuk eta bertsolari jakin batzuk hartzen ditu. Baina bertso eskoletan eta beste-lako plaza txikiagoetan geldialditxoak egon da pandemiaren ondoren. Hori berreskuratzeko ahalegin bat egin nahi da, jakinda txapelketak ez daukala hori pizteko ahalmen erabatekoa. Baina jakitun gara txapelketak energia asko mugitzen duela, eta hori baliatu nahi dugu», esan du Azaldegik. Hartara, sailkapen fase bizi batek bertso eskolak eta herriko bertso sarea astinduko dituela espero dute.

#### SAIOAK OSTEGUN ETA OSTIRALEZ

Hasierako sailkapen fasean 20 saio jokatu dira; Eskoriatza, Zestoa, Gabiria, Altzo, Zaldibia, Orio, Legorreta, Idiazabal, Getaria, Mutriku, Anoeta, Oñati, Antzuola, Pasaia, Alegia, Usurbil, Ataun, Elgeta, Sorluze eta Hernani.

«Oso polita izaten ari da, udaletatik oso erantzun ona jasotzen ari gara. Saioak kultur etxe eta aretoetan izango dira, eta ondoren mokadu bat eskainiko da, bertso komunitatea lotzeko, txapelketa ospatzeko. Bertsogintzaren izaera komunitarioa nabarmendu nahi dugu».

2019ko sailkapen fasearekin alderatuta, desberdintasun nagusia da aurtengoa bi itzulitara jokatu dela eta saioak ostegun eta ostiralez izango direla lehen itzulian. «Izena eman duten bertsolari guztiek kantatuko dute lehen fasean, 74 bertsolari guztira. Eta horietatik 48k bigarren itzulian kantatuko dute puntuazioaren arabera. Hor galbahe bat izango da. 48 horietatik 34 bertsolarik lortuko dute udazkenean txapelketan abestea. Fasea lu-

**«Aurten garrantzia eman nahi izan diogu sailkapen faseari; plazan askotan ikusten ez diren bertsolariak entzuteko aukera bikaina da, eta horrek freskotasuna ekartzen du berez»**

**Guztira 74 bertsolarik parte hartuko dute Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean, ia erdiak lehendabiziko aldiz. Badator bertsolari berrien olatua. Parte-hartzaileen herena da emakumea**

zatu dugu, saio ia bikoitzak izango direlako. Lehen fasean saioak ostegun eta ostiralez izango dira, eta ondoren mokadu bat eskainiko da aretoan bertan, bertsolari eta bertsozaleentzat. Komunitatea indartu nahi dugu pixka bat. Bigarren fasean, berriz, saioak asteburuz izango dira».

Bertso eskolak bertsogintzaren oinarritzko kanpaleku dira. Hori nabarmentzeko ahalegin bat egin nahi du aurten txapelketak. Eta bertso komunitatea josteko saiakera ere egin

Beñat Azaldegik, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen sustapen eragilea.  
Gotzon ARANBURU | FOKU

nahi du, hortik saioaren ondoren mokadua eskaintzearena. «Hor sortzen diren elkarrizketek, bertsozaleen, antolatzaileen eta entzuleen artean sortzen direnek, balio handia daukate. Hor josten da komunitatea», esan du Azaldegik.

#### BADATOR OLATU BERRIA

Guztira 74 bertsolarik parte hartuko dute Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean, ia erdiak lehendabiziko aldiz. Badator bertsolari berrien olatua. «Kezka badagoen arren, oinarriak osasuntsu jarraitzen duela erakusten du horrek. Aurten eskolartekoetan bertsolari askok parte hartu dute eta bestelako ekintzetan ere haur asko dabil-tza. Ezin dugu erlaxatu, eta bide horretatik dator Gipuzkoa Bertsotan», iritzi dio Azaldegik. Parte hartzaile berrien artean, profilak askotarikoak dira. «Asko eskolarteko txapelketatik datoz, baina badira eskolartekoetan aritu gabe bertso esko-

latik zuzenean animatu direnak ere. Eta badira garai batean txapelketan parte hartu eta berriz animatu direnak ere. Oso profil desberdinak eta interesgarriak daude».

Genero ikuspuntuari dago-kionez, txapelketan parte hartuko dutenen artean heren bat inguru dira emakumezkoak. «Txapelketan abiatuko direnen artean, herena baino gutxiago dira emakumeak sailkapen fasean. Kontuan izan dagoeneko sailkatuta dauden artean emakumeak herena baino gehiago direla. Txapelketetan normalean emakume gutxiago abiatzen dira, gero goiko faseetara iristen direnak proportzioan gehiago izan arren. Erronka handia daukagu hor, egoera horri buelta emateko lan egin behar dugu. Eskolarteko txapelketetan eta bertso eskolatan emakume dezente daude, baina plazara salto egiterako orduan aldatzen da kontua. Hor erronka handia daukagu».

Txapelketako joera da hori, abiatzen diren emakume kopurua askoz txikiagoa izanagatik, goiko faseetara iristen dira abiatzen diren horietako asko, eta horrek azken emaitza desitxuratu egiten du, berez dagoena baino parekidetasun gehiago iradokitzen duelako.

«Interesgarria da parte hartzera animatzen direnetan emakume gehiago izatea. Finalak garrantzitsuak dira, baina Santa Ageda eskean parte hartuko duten bertsolariak izatea ere garrantzitsua da, eta hor ere emakumeen presentzia beharrezkoa da».

#### ALDAKETAK ARIKETETAN

Aste honetan abiatu da Gipuzkoa Bertsotan, Eskoriatzan, Zestoa eta Gabirian jokatu-tako lehen hiru saioekin. Lehen fase honetan, saio bakoitzean



hamaikana bertso josi behar dituzte bertsolariek, eta berezitasunetako bat izango da ganbarakoa ez dela azken ariketa izango, tartean egongo dela. Beñat Azaldegik azaldu duenez, «hori ere erabaki bat da. Ohiko plazan urtean zehar gertatzen den hori islatu nahi dugu txapelketan ere, kontziente izanda oso zaila dela lortzea, plaza eta txapelketa bi egoera desberdin direlako. Baina saiakera bat da saioa entzulearentzat erakargarriagoa izan dadin. Bertsogintza-ko talde batekin batera osatu dugu saioen antolaketa; bertsolarien, gai-jartzaileen eta

**«Finalera bitartean aldaketak izango dira ariketei dagokienez, baina beti zainduko da bertsolariaren ongizatea», zehaztu du Beñat Azaldegik**

**Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean 74 bertsolari abiatu dira; horietatik 34k lortuko dute aurrera egitea eta udazkenean Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan parte hartzea**

epaileen ordezkariak osatua. Bertan sortutako hausnarketatik antolatu ditugu saioko ariketak». Bigarren fasetik aurrera, ganbarako ariketa bukaerara

aldatuko da. «Finalera bitartean aldaketak izango dira ariketei dagokienez, baina beti zainduko da bertsolariaren ongizatea», zehaztu du Azaldegik. Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasearen lehen parte a maiatzaren 17an amaituko da. Hor pasatuko dute lehen galbahea bertsolariek, 74tik 48 bertsolarik lortuko baitute aurrera egitea. Bigarren itzulia ekainean amaituko da, eta hor zehaztuko da aurrera egingo duten bertsolarien zerrenda, 34 guztira. Horiei batuko zaizkie aurreko txapelketatik dagoeneko

sailkatuta dauden 14 bertsolariak. Guztira, beraz, 48 bertsolari arituko dira aurten Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, irailaren 14 eta abenduaren 14 bitartean. Sailkatuta egon arren, lau bertsolarik txapelketan ez parte hartzea erabaki dute; Jon Maia, Beñat Lizaso, Jokin Uranga eta Haritz Mujika. Sailkapen fasearen hurrengo hitzordua datorren astean izango da; ostegunez, Altzon eta Zaldibian eta, ostiralez, Orion eta Legorretan. Sarrerak dagoeneko salgai daude [www.bertsozale.eus/gipuzkoa](http://www.bertsozale.eus/gipuzkoa) helbidean.

## UZTAPIDE ETA BERTSO ESKOLAK

Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasearen irudia Unai Gaztelumendi marrazkilari eta bertsolariak egin du, Uztapideren argazki sonatu bat oinarri hartuta. Manuel Olaizola “Uztapide” 1909ko maiatzaren 10ean jaio zen Zestoan eta 1983ko ekainaren 8an zendu zen Oiartzunen. Bertsolaritzaren garai oso desberdinak bizitzea egokitu zitzaion, eta beti asmatu zuen garai bakoitzera ondo moldatzen. Txirritarekin abestu zuen eta lehen bertso eskolak ezagutu zituen, irudi horrek kontatzen duen bezala. Argazki hori 1983ko maiatzean dago egina, Uztapide hil baino aste

batzuk lehenago. Bertan, bertsolaritzaren maisu zaharra bertso eskolako ikasle gazteen artean eserita ikus daiteke, guztiak bertsogintza den transmisio soka horretako parte. Ikasle horien artean honakoak daude: Jon Eizmendi, Felix Iñurrategi, Jon eta Aitor Sarasua, Joxe Mari Mujika “Anatx”, Xabier Euzkitze, Arantzazu Loidi, Iñaki Izarzelaia eta Danel Goikolea. Lehen bertso eskolako irudi famatu horrek ondo erakusten du bertsolaritzaren muina, aspalditik datorren eta etengabe garai berrietara egokitzen den bat-bateko sorkuntza baita.

